



Ikasmina DoKS:

**Gipuzkoako bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak**

Tele-ikastea: ibilbidea eta azkenaldiko esperientzia

80. dokumentua

2021eko azaroa



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Ibilbidea: tele-ikasten ari zirenak	4
2.1. Ibilbidea: tele-ikasten ari zirenak.....	4
2.2. Tele-ikaskuntzako ibilbidea eta pertsonen tipologia.....	6
2.3. Tele-ikasten ari ziren pertsonak eta enpleguarekin lotura.....	8
3. Azkenaldiko esperientzia: tele-ikasten ari direnak	10
3.1. Testuingurua finkatzeko datu batzuk	10
3.2. Azkenaldiko esperientzia: tele-ikasten ari direnak	13
3.3. Ikasteko modalitateak eta pertsonen karakterizazioa	15
3.4. Ikasketa-modalitatea eta enpleguarekiko lotura	17
4. Ondorioak	18
4.1. Ondorioak: gakoak eta gogoeta	18

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Dokumentu honen helburua da ikaskuntzarekin lotuta eta, modu zehatzagoan esanda, ikaskuntza birtualeko modalitatearekin lotuta lortutako emaitzen panela¹ aurkeztea. Tele-ikaskuntzako jardueren errealitatea lantzeko (ikaskuntza birtuala edo urrunekoa), hiru informazio-bloke hartu dira kontuan:

- Proposatutako ikaskuntza-modalitateekin (presentziala bakarrik, birtuala bakarrik eta bi modalitateetako jardueren konbinazioa) lotuta pertsonen aurreko ibilbidea eta haien azken esperientzia ezagutzea.
- Ikaskuntza modalitate birtualean egiteko haien ingurunean eskuragarri dauden baldintzak eta pertsonen gaitasunak ezagutzea.
- Egindako ikaskuntza birtuala eta lortutako asebetetze maila, eta ikaskuntza birtualarekin lotutako ikasteko asmoak eta aurreikuspenak baloratzea.

Lortutako emaitzak parte-hartzaileen karakterizazioaren arabera kualifikatu dira: adina, generoa, lortutako ikasketa maila eta/edo profil profesionala (okupazioa).

Emaitzen panel honek Gipuzkoako helduek ikaskuntza birtualarekin lotutako jardueretan izandako eta gaur egun duten esperientzia erakusten du denbora errealean. Gainera, covid-19aren pandemiak ezarritako murrizketak gainditu ostean epe ertainera begira tresna honek eskaintzen dituen aukerak jasotzen ditu. Amaitzeko, aipatu beharrekoa da dokumentu honetako emaitzak planteatutako gaien lehen blokean (ibilbidea eta azkenaldiko esperientzia) oinarritu direla.

¹ 2021eko otsailean egindako kontsulta.

2. Ibilbidea: tele-ikasten ari zirenak

2.1. Ibilbidea: tele-ikasten ari zirenak

Hamar gipuzkoar heldutik (25-74 urte, ikasleak ez direnak) bizpahiruk pandemia aurretik tele-ikaskuntzako jarduerak egin zituen

Zer dira edo zertan datzate tele-ikaskuntzako jarduerak? Tele-ikaskuntzako jarduerak prestakuntza-jarduera birtualera sarbidea izateko bi ildo dira: edukien deskarga eta streaminga eta/edo ikastaroetara zuzeneko sarbidea (streaminga edo beste edozein aplikazio teknologiko). Eta, zehatzago esanda, pandemia aurretik ikaskuntzako modu horiek zenbatero erabiltzen zituzten galdetu da (inoiz ez aukeratik hasi eta dezentetan edo askotan aukerara arte).

1. taula. Tele-ikasten ari diren pertsonen ibilbidea (pandemia aurretik)

25 eta 74 urte arteko pertsonak

Pertsonen %	Inoiz edo ia inoiz ez	Noizbait	Dezentetan edo askotan
Egindako tele-ikaskuntzako modalitatea			
Eduki eta ikastaroen deskarga	61,0	33,9	5,1
Streaminga, konexioko app bidez	74,5	21,4	4,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emaitzek hau erakusten dute:

- Gipuzkoako heldu gehienek aipatu dute inoiz edo ia inoiz ez dutela edukien deskargarik egin (% 61,0), edo streaming bidez edo urruneko beste konexio-moduren batean ikastaroetan (% 74,5) parte hartu.

Dena den, gehiengoa lortu duen aukera halakorik ez egin izana den arren, bi modalitateen artean dagoen aldea handia da (ehuneko 13 puntukoa) eta handiagoa da “deskargako” modalitatearen presentzia “urruneko konexioarena” baino.

- Ikaskuntza birtuala erabili duten pertsona gehienek (deskarga edo konexioa) aipatu du apartekoa izan zela (batzuetan, pertsonen % 33,9k eta % 21,4k, hurrenez hurren). Gutxiengoa lortu duen taldea da erabilera esanguratsua egiten dutela aipatu dutenena (dezentetan edo askotan, pertsonen % 5,1ek eta % 4,1ek).

Eraitza horiek bat datoz² 2020ko Informazioaren Gizartearen Inkestan, IGI-Familiak izenekoan (Eustat), jasotakoekin. Izan ere, orduko emaitzen arabera, 15 urte baino gehiagoko biztanleen % 15,7k eta % 11,7k aipatu zuen edukiak deskargatu (ikaskuntzarako materiala) eta onlineko ikastarook egin zituela, hurrenez hurren.

² Gipuzkoako helduen artean, kontsultari erantzundakoen kolektiboa ikaslea ez den eta 25-74 urte duen kolektiboa izan da; aldiz, IGI-Familiak inkestako erreferentziazko kolektiboa 15 urte eta gehiagoko pertsona guztiak izan dira (presentzia handia dute ikasleen kolektiboak sistema arautuan eta 75 urteko eta gehiagokoen taldeak eta, bi kasu horietan, bizitza osoan ikaskuntza-jarduerak egiteko probabilitatea txikiagoa da).

Eustatek kontsulta egin aurreko 12 hilabeteko datuak jasotzen ditu; aldiz, Gipuzkoako helduei egindako inkestan egindako galdera zabalagoa eta orokorragoa da. Azken kasu horretan, duela gutxi (azken bi edo hiru urteetan) jardura horiek egin dituztela aipatu dute. Horrenbestez, helburua ez da azken urtean egindakoa zehatz-mehatz neurtzea, baizik eta egungo egoeraren aurrean tele-ikaskuntzako aurrefiazko esperientziaren bat duen kolektiboa mugatzea (2021eko otsailean egindako kontsultaren aurreko hamabi hilabeteetan egindakoa).

2.2. Tele-ikaskuntzako ibilbidea eta pertsonen tipologia

Erabilera handia aipatu dutenak gutxiengoa dira, baina emakumeak apur bat gehiago

Generoaren arabera emaitzetan ez dago alde handirik: Gipuzkoako gizon eta emakume gehienek prestakuntzako edukiak ez dituztela deskargatu edo urruneko ikastaroetara ez direla sartu erantzun dute (emakumeen % 60,5ek eta % 74,3k, eta gizonezkoen % 61,5ek eta % 74,8k). Dena den, erabilera gutxiengoa den arren, bi modalitateak dezentetan edo askotan egin dituztela aipatu duten emakumeen ehunekoa zertxobait handiagoa da (% 5,8 eta % 5,3) gizonezkoena (% 4,5 eta % 3,0) baino.

Emaitza horiek bat datoz 15 urteko eta gehiagoko Gipuzkoako populazio osoa biltzen duen 2020ko Informazioaren Gizartearen Inkestan, IGI-Familiak (Eustat) izenekoan, jasotakoekin. Inkesta horren arabera, ikaskuntza birtualeko partaidetzari dagokionez, emakumeen artean zertxobait handiagoa da (% 18,2 eta % 14,9) gizonezkoen artean (% 13,2 eta % 8,3) baino.

2. taula. Tele-ikasten ari diren pertsonen ibilbidea eta generoa

25 eta 74 urte arteko pertsonak

Pertsonen %	Inoiz edo ia inoiz ez	Noizbait	Dezentetan edo askotan
Eduki eta ikastaroen deskarga			
Emakumea	60,5	33,8	5,8
Gizona	61,5	34,0	4,5
Streaminga, konexioko app bidez			
Emakumea	74,3	20,5	5,3
Gizona	74,8	22,3	3,0


Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Tele-ikaskuntzako esperientzia gutxitu egiten da pertsonen adinak gora egin ahala

Honi atxikita dagoen grafikoan ikus daiteke tele-ikaskuntzako bi modalitateetako batean izandako erabilera adin-taldearen arabera banatuta. Proposatutako bi modalitate horietako bat, noizbait dezentetan edo askotan erabili izanarekin lotutako emaitza modu agregatuan azaltzen da haietako bakoitzerako. Eta, bistakoa den moduan, nabarmen gutxitzen da pertsonen adinak gora egin ahala.

1. grafikoa. Tele-ikasten ari ziren pertsonak¹, adinaren arabera (%)

25 eta 74 urte arteko pertsonak



1. Ikaskuntza-edukiak noizbait edo dezentetan deskargatu dituzten edo streaming-app bidez sartu diren pertsonak.


Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Tele-ikaskuntzako ibilbidea handitu egiten da lortutako ikasketak mailarekin batera

Zenbat eta handiagoa izan lortutako prestakuntza-maila, tele-ikaskuntzako modalitatea noizbait, dezentetan edo askotan erabili duten pertsonen ehunekoa ere nabarmen igotzen da: lehen mailako ikasketak dituztenen % 20,5etik goi mailako ikasketak dituzten % 52,5eraino.

2. grafikoa. Tele-ikasten ari ziren pertsonak¹, ikasketak mailaren arabera (%)

25 eta 74 urte arteko pertsonak



1. Ikaskuntza-edukiak noizbait edo dezentetan deskargatu dituzten edo streaming-app bidez sartu diren pertsonak.

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emaitza hau adinarekin (gazteenek, oro har, titulazio maila handiagoa dute) eta bitzita osoko ikaskuntzako ibilbidearekin lotuta dago. Hain zuzen ere, ikasketak mailak gora egin ahala, tasa ere igo egiten da.



2.3. Tele-ikasten ari ziren pertsonak eta enpleguarekin lotura


Tele-ikaskuntzako kuota handiagoa langabezian edo okupatuta daudenen artean

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan helduek duten parte-hartzea (2021) nabarmen handiagoa da enplegua duten pertsonen (% 45,3) edo langabezian dauden pertsonen artean (% 40,7), dagoeneko ordaindutako lan-merkatutik atera (% 21,1, erretirodunak) diren pertsonekin alderatuta.

Emitzen joera hori tele-ikaskuntzarekin ere gertatzen dela esan daiteke. Azken batean, adinak eta/edo lortutako ikasketa mailak baldintzatzen dute. Hala, honi atxikita dagoen grafikoa ikus daitekeen moduan, pandemia aurretik ere tele-ikaskuntzako jardueraren bat egin zuten pertsonen parte-hartze tasa handiagoa da enplegua duten edo langabezian daudenen artean, erretiroa hartutakoen artean baino³.

3. grafikoa. Tele-ikasten ari ziren pertsonak, enpleguarekin duten loturaren arabera (%)

25 eta 74 urte arteko pertsonak



1. Ikaskuntza-edukiak noizbait edo dezentetan deskargatu dituzten edo streaming-app bidez sartu diren pertsonak.

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

³ Horrekin lotuta, kontuan izan behar da ikasteko motibazioan beste alderdi batzuek ere lotura dutela: lotura sozialak, eta esperientzia partekatzeak eta/edo lagunak egiteak, adibidez. Ikaskuntzako parte-hartzearekin lotura duten elementu horiek garrantzi handiagoa izaten dute erretirodunen artean lanean ari direnen eta langabezian daudenen artean baino. Azken horien kasuan, garrantzi handiagoa izaten du ezagutzak sakontzeak edo ugaritzeak eta/edo ibilbide profesionala-enplegua hobetzeak.

Atxikitako koadroan ikus daitezke emaitzak xehetasun gehiagorekin, eta honako hauek ondoriozta daitezke:

- Lanean ari diren (% 43,4) edo langabezia dauden (% 42,0) hamar lagunetik lauk egin ditu ikaskuntza-jarduerak informazio-edukiak deskargatuta. Proportzio hori txikiagoa da erretiroa hartuta dutenen artean, zeina hamarretik ia hirukoa den (% 27,0).
- Bestalde, proportzio hori zertxobait txikiagoa da onlineko prestakuntzaren erabilerrari dagokionez; izan ere, lanean ari diren (% 27,7) edo langabezia dauden (% 29,6) dauden artean hamarretik ia hirukoa da, eta erretirodunen artean (% 19,4), aldiz, hamarretik bikoa.
- Tele-ikaskuntzako bi modalitate horietan, noizbehinkako erabilera da nagusi, baina azpimarratu beharrekoa da modalitate hori erabili ondoren, lanean ari diren edo langabezia dauden pertsonak dezentetan edo askotan landu dutela dioen datua erretirodunena baino handiagoa dela.

3. taula. Tele-ikasten ari ziren pertsonak, enpleguarekiko loturaren arabera

25 eta 74 urte arteko pertsonak

Pertsonen %	Inoiz edo ia inoiz ez	Noizbait	Dezentetan edo askotan
Eduki eta ikastaroen deskarga			
Ordaindutako enpleguarekin	56,7	37,2	6,2
Langabea	58,0	35,8	6,2
Erretiroduna	73,0	25,4	1,6
Streaminga, konexioko app bidez			
Ordaindutako enpleguarekin	72,4	22,5	5,2
Langabea	70,4	24,7	4,9
Erretiroduna	80,5	17,8	1,6

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3. Azkenaldiko esperientzia: tele-ikasten ari direnak

3.1. Testuingurua finkatzeko datu batzuk

Pandemiaren egoera dela eta, "urruneko" jarduerak bultzatu egin dira

Covid-19aren pandemia kontrolatzeko ezarritako murrizketak direla eta azken hemezortzi hilabeteotan bizi izandako egoeraren ondorioz, aldatu egin da pertsonen eguneroko testuingurua. Bat-batean, pertsonak mugikortasunean eta/edo harreman sozialetan egindako murrizketak onartu behar izan zituzten eta inoiz baino gehiago lan-jardueraren (ahal zenean) edo ikaskuntzaren garapenera aplikatutako "tele" edo "urruneko" modalitateera bideratu ziren.

Ondorioz, 2020ko martxoan hasitako aldi honek "ikaskuntzako shocka" eragin du jarduera presentzialaren pisua murriztuz eta jarduera birtuala indartuz. Hala,

- Horren adibide bat da telelanaren erabilera⁴; izan ere, 2020an Gipuzkoako langileen % 12,8k telelana egin zuen (kopuru horrek aurreko urteetako bikoiztu baino gehiago egin zuen).
- Bestalde, enpresek kontsolidatu egin dute urruneko konexiorako sarbidea duten pertsonen proportzioa. Horiek osatzen dute telelaneko "sabai potentziala⁵" eta hamar langiletik laukoa da.

⁴ Enpresako IKT sistemekin konektatzeko sare telematikoak erabiliz enpresaren lokaletatik kanpo ohikotasunez (gutxienez lanaldi erdia) lan egiten duten pertsonak (Eustat). Informazioa enpresak eman du, telelanaren definizio honi lotutako enpleguaren ehunekoa zein den jakinarazi baitu.

⁵ Hori egin ahal izateko egitura teknologikoa eskuragarri izatea.

4. taula. Urruneko konexioetara sarbidea duten edo telelanean ari diren pertsonak

Langileen guztizko kopuruaren arabera %

	Langileak urruneko konexioarekin		Tele-langileak	
	Gipuzkoa	EAE	Gipuzkoa	EAE
2018	34,7	32,7	4,5	3,9
2019	35,5	33,5	5,2	5,4
2020	37,1	37,2	12,8	12,0

2019, 2020 eta 2021eko IGI-enpresak, aurreko urte bakoitzeko datuak eman dituztenak.

Iturria: Informazio Gizartearen Inkesta; IGI-enpresak (Eustat).

2020ko erreferentziazko datu global hori 2020ko bigarren hiruhilekoan (batez ere) bizi izandako egoerak baldintzatzen du bereziki. Hala, murrizketak egokitzen joan diren heinean, telelanean lana ere aldatu egin da, eta nabarmen gutxitu.

Euskal Autonomia Erkidegoko informazioak agerian uzten du⁶ hiruhileko bakoitzean telelanean ari den pertsonen ratioa balio txikiagoetara jaitsi dela 2021ean (% 5-6 ingurura). Zifra horiek 2018koak eta 2019koak (Eustat) baino handixeagoak dira, baina 2020ko balio maximoetatik urrun daude (bi erreferentzia estatistikoaren arabera).

Bi iturri estatistikoek telelanean ari direnen enplegu-oinarria erakusten dute: urrunetik lan-jarduera garatzea ahalbidetzen duten tresnen aukera oso zabala ezagutzen eta/edo erabiltzen duen kolektiboa da eta, horrenbestez, ikaskuntza-jarduerak urrunetik egiteko aukera ere baduena.

5. taula. Lanaldiaren zati bat etxean egin duten langileak, hiruhilekoen arabera banatuta

Langileen guztizko kopuruaren arabera %

	2020-2.H	2020-3.H	2020-4.H	2021-1.H	2021-2.H
Tarteka	3,7	4,6	4,2	5,1	4,6
Lanaldiaren erdia baino gehiago	12,8	7,7	5,5	6,9	5,9
Egun bat ere ez	83,4	87,7	90,3	87,9	89,5

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE)

⁶ Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE). Egindako galderaren arabera, pertsona da telelanean lotuta bere egoera zein den jakinarazten duena: lanaldiaren erdia, gutxienez, eta bere etxetik.

Kolektibo hau litzateke, modu murriztaileagoan, (laneko ingurunetik) urruneko ikaskuntzako jardueretako erabiltzaile potentzialen taldea. Baina, gainera,

- Bertsio zabalaren erreferentzia⁷ etxean Internetarako (% 90) edo ordenagailurako (% 82) konexioa duten pertsoneri dagokie. Ondorioz, ikasteko modu horiek erabilgarri dituzte Gipuzkako "ia" heldu denek.

Bestalde, aipatu beharrekoa da Interneteko erabiltzaileen ia denak (% 95) etxetik (edo beste edozein puntu pribatutatik) sartzen direla.

- Bestalde, enpresek⁸ adierazi dute beren enpleguaren heren batek (% 37) bere lanpostutik Internetarako konexioa duela.

Adierazle esanguratsua da; izan ere, helduen bizitza osoko ikaskuntzako jardueren zati handi bat esparru profesionalan eta arrazoi profesionalak bultzatuta egiten da.

Jarraian, azken hamabi hilabeteotan ikaskuntza-jardueretan pertsonen erabilitako modalitateekin lotutako emaitzak aztertuko dira; ikaskuntza digitalerako ibilbidearen adierazle (gaitasunak) gisa aurretiazko esperientzia hartuko dugu kontuan abiapuntua zehazteko. Emaitzak pertsonen karakterizazioaren eta enpleguarekiko loturaren arabera aurkeztuko dira.

⁷ IGI-Familiak (Eustat) 2021ean jasotako informazioa; 2020ari dagokion datua (eskuragarri dagoen azken datua).

⁸ IGI- Enpresak (Eustat) 2021ean jasotako informazioa; 2020ari dagokion datua (eskuragarri dagoen azken datua).

3.2. Azkenaldiko esperientzia: tele-ikasten ari direnak

Pandemiak ikaskuntzako jarduerak ere nahasi ditu: hiru pertsonatik bik modu birtualean bakarrik edo bi modalitateak konbinatuz ikasten dute

Gipuzkoako helduen (25-74 urte) % 38,0k hartu du parte bitzita osoko ikaskuntza-jardueretan⁹. Baina, 2020ko martxoaren 14tik pertsonak beren bizitzan izan duten egoera ikusita, nola egin da ikaskuntza hori?

6. taula. Ikasi duten pertsonak, ikaskuntza-modalitatearen arabera

25 eta 74 urte arteko pertsonak

Pertsonen %	Presentziala	Birtuala	Bi modalitateak
Efengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)	30,6	35,5	33,9
Ikasketa formala	32,1	25,6	42,3
Ikasketa ez-formala	28,0	39,0	33,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emaitzek hau erakusten dute:

- Pertsonen heren batek modu presentzialean bakarrik (% 30,6) ikasi du, beste heren batek (% 35,5) modu birtualean bakarrik¹⁰ eta gainerako herenak bi modalitateen bidez ikasi duela aipatu du (% 33,9).

Horrenbestez, ikasi duten pertsonen bi herenek modu birtualean (bakarrik edo beste jarduera presentzial batzuekin bateratuta) egin du. Ratio hori Gipuzkoako helduen ikaskuntza-tasarekin alderatuta aplikatzen bada, Gipuzkoako helduen % 26,4k tele-ikasi egingo zuela ondoriozta daiteke (erabat edo partzialki) eta kopurua 123.500 pertsona ingurukoa litzateke.


- Egindako ikaskuntza motaren arabera aldeak detektatu dira: ikaskuntza formala egindako hamar lagunetik lauk bi modalitateak (% 42,3) bateratu ditu; aldiz, ikaskuntza ez-formalaren kasuan, proportzio hori bera (% 39,0) izan zen formatu birtualaren bidez ikasi zuena.

⁹ Titulu ofiziala lortzera (ikaskuntza formala) bideratutako eta modu antolatuan eta iraunkorrean egin arren, titulurik ez duten (ikaskuntza ez-formala) ikaskuntza-jarduerak biltzen ditu. Kontsulta 2021eko otsailean egin zen eta aurreko 12 hilabeteetako jarduerari lotuta dago.

¹⁰ IKT inguruneekin lotutako ikaskuntza-prozesuak, pertsonen arteko kontaktu fisikorik gabea (edukien deskarga eta ikastaro eta eskolak emateko sistemetarako konexioa -streaminga eta abar-).

4. grafikoa. Ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea modalitatearen eta aurretik tele-ikaskuntzarekin lotuta izandako esperientziaren¹ eta arabera

Ikasten ari diren 25 eta 74 urteko pertsonen %



¹ Pandemia aurretik tele-ikasten ari zen: noizbait eta/edo dezentetan deskargatu zituen edukiak edo urruneko ikastaroetarako konexioak egin zituen.

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Tele-ikaskuntzaren ibilbidea bi faktoreren gainean eraiki da: lehenengoa, eskaintza hori izatea¹¹ eta, bigarrena, pertsonen horretarako gaitasuna eta/edo baliabideak izatea. Hala, azken hemezortzi hilabeteotan ahalik eta jarduera kopuru handiena (ikaskuntzakoak izan ala ez) modu birtualean egin behar izan den arren (pertsonen arteko kontaktua minimizatuta), bistakoa da emaitza ezberdina dela parte-hartzaile batek aurretiazko esperientzia duenean:

- Aurretiazko eskarmentua dutenen artean, % 47,4k adierazi du 2020an egindako ikaskuntza birtuala bakarrik izan dela. Emaitza horri bi modalitateak konbinatuta araberako ikaskuntza egin duten pertsonen % 37,6 gehitu behar zaio.
- Tele-ikaskuntzan esperientziarik ez duten pertsonen dagokienez, erdiak modu presentzialean egin dituzte ikaskuntzako jarduerak. Aldiz, gainerako erdiak modalitate birtuala (% 19,8) edo bi modalitateak (% 29,0) erabili dituzte. Talde horrentzat, bikoitza izan da ikaskuntza: ikaskuntza bera eta hori modu birtualean egiten ikastea.

Emaitzek agerian utzi dute 2020an Gipuzkoako helduek egindako ikaskuntzako jardueretan modalitate birtualak (erabat edo partzialki erabilitakoa) izan duen garrantzia. Baina, horrez gain, 2020an aurretiazko ibilbiderik ez zuen pertsonen kolektiboaren kasuan ikaskuntza-modalitate horretan barneratzea etorri zen (hau da, ikasketa bikoitza).

¹¹ Eta posible izatea: emandako prestakuntza-edukiak direla eta (makina jakin bat erabiltzearekin lotuta, adibidez) elementu presentzial handia duten prestakuntzako eskaintzak daude.

3.3. Ikasteko modalitateak eta pertsonen karakterizazioa


Ikasteko modalitateekin lotuta gizon eta emakumeen arteko erabilera antzekoa da

Honi atxikitako grafikoan ikus daiteke generoaren arabera pertsonen azken urtean erabilitako ikaskuntzako modalitateei dagokienez emandako erantzunen banaketa. Ezin daiteke esan aldeak handiak direnik; izan ere, bi kasuetan, hiru pertsonatik ia batek ikasi zuen modu presentzialean bakarrik, eta hiru lagunetik bik modu birtualean (bakarrik) edo bi modalitateak bateratuta.

Hori bai, alde handiena ikasteko modalitate bakarra birtuala denean erregistratzen da; izan ere, kasu horretan, hamar emakumetik ia lauk ikasi du modu birtualean bakarrik (% 39,2) eta proportzio hori zertxobait txikiagoa da gizonezkoen artean (% 31,8). Aldiz, handiagoa da modalitate konbinatuan parte hartu duten gizonezkoen kopurua (% 36,4koa eta emakumeen % 31,4koa).

5. grafikoa. Ikaskuntza-modalitatea eta generoa

Ikasten ari diren 25 eta 74 urteko pertsonen %



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Adinaren faktorea erabakigarria (orain arte), eta inflexio-puntua 55 urte inguruan


Pertsonaren adinaren arabera¹² emaitzek agerian utzi dute modalitate birtuala (bakarrik edo modu bateratuan) aipatu duten pertsonen kopurua nabarmen handiagoa dela gazteen artean (hamar lagunetik zortzikoa da). Inflexio-puntua 55

¹² 25-34 urtekoen taldean dago "ikasleen" proportzio handiena. Horri esker, ikaskuntza formalaren eta modalitate konbinatuaren arabera ikaskuntzaren emaitza (eskaintza mota) handiagoa da. Bestalde, 55-74 urtekoen taldean "lehen mailako ikasketen" presentzia handiagoa da eta horrek eragina du (ikaskuntza birtualeko tasa txikiagoa da).

urte inguruan topa daiteke: atalase horren azpiko adin-taldeen artean dauden aldeak nahiko txikiak eta garrantzi gutxikoak dira, baina alde esanguratsuen 55 eta 74 urte artekoen artean aurkitzen da; izan ere, kasu horretan, jarduera presentziala aipatu duten pertsonen proportzioa beste taldeetako baino handiagoa da (% 54,5ekoa).

6. grafikoa. Ikaskuntza-modalitatea eta adina

Ikasten ari diren 25 eta 74 urteko pertsonen %




Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikaskuntza birtualak gora egiten du pertsonen prestakuntzak gora egin ahala

Goi mailako ikasketak (% 78,3) dituzten pertsonak dira batez ere modu birtualean ikasi dutela aipatu dutenak (bakarrik edo modu konbinatuan) lanbide-heziketako ikasketak (% 59,1) eta lehen mailako ikasketak (% 46,9) dituzten pertsonekin alderatuta. Bestalde, hiru taldeetan, modalitate birtuala bakarrik aipatu duten pertsonen ehunekoa bi modalitateak aipatu dituztenena baino handiagoa da.

7. grafikoa. Ikaskuntza-modalitatea eta lortutako ikasketa maila

Ikasten ari diren 25 eta 74 urteko pertsonen %



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia



3.4. Ikasketa-modalitatea eta enpleguarekiko lotura

Lanean ari diren edo langabezian daudenek ikaskuntza birtuala aukeratzen dute

Honi atxikitako taulan ikus daiteke ordaindutako lan-merkatuarekin duten loturaren arabera pertsonak erabili dituzten ikaskuntza-modalitateen emaitzak. Hala,

- Lanean ari diren edo langabezian dauden pertsonak dira ikaskuntza birtualeko aukerak hautatu dituztenak batez ere (modu bakarrean edo jarduera presentzialekin uztartuta). Hala,
 - Lanean ari diren edo langabezian dauden hamar lagunetik zazpi egin ditu ikaskuntzako jarduerak modu birtulean bakarrik edo jarduera presentzialekin bateratuta. Proportzio hori hamar lagunetik hirura gutxitzen da erretiroa hartuta dutenen artean.
 - Aldiz, hamarretik (okupatuak edo langabetuak) hiruk bakarrik aipatu dituzte jarduera presentzialak eta erretirodunen artean, ordea, proportzio hori hamarretik seikoa da.
- Gainera, okupatutako pertsonen edo langabetuen artean (bi taldeetan) nabarmendu beharrekoa da ikaskuntza birtuala bakarrik egin dutenen proportzioa (% 38,2 eta % 42,4); izan ere, ikaskuntza bi modalitate horietan egin dutenen kopurua baino handiagoa da (% 35,9 eta % 30,3).
- Amaitzeko, esan beharrekoa da gehienbat beste kategoria batzuetakoak (batez ere ikasleak) direla bi ikaskuntza-modalitate horiek egin dituztela aipatu dutenak. Emaiza hori hezkuntza formaleko formatuek (batez ere presentzialak) baldintzatu dute.

7. taula. Ikaskuntza-modalitatea eta enpleguarekiko lotura

Ikasten ari diren 25 eta 74 urteko pertsonen %

	Presentziala	Birtuala	Bi modalitateak
Lan-egoera			
Ordaindutako enplegua	25,9	38,2	35,9
Langabezian	27,3	42,4	30,3
Erretiroduna	61,5	15,4	23,1
Beste batzuk ¹	25,0	25,0	50,0

¹ Ordaindutako lan-merkatuan sartu gabeko pertsonak eta ikasleak biltzen ditu.

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

4. Ondorioak

4.1. Ondorioak: gakoak eta gogoeta

Dokumentu honen helburua da ikaskuntza-modalitate ugariekin lotuta Gipuzkoako helduek egindako erabilera ezagutzea. Lortutako emaitzak pertsonen (aurreko) ibilbidean eta azkenaldiko esperientzian (azken hamabi hilabeteak) oinarritzen dira. Emaitzen bi talde horiek pertsonak karakterizatzeko erabiltzen diren aldagaien arabera kualifikatzen dira (generoa, adina, lortutako ikasketa maila eta abar). Lortutako emaitzei dagokienez, honako hauek nabarmen daitezke:

- Pertsonak ikaskuntza birtualeko modalitateetan (edukien deskarga edo ikastaroen jarraipena streaming-app-en bidez) aurrez zuten ibilbidea edo esperientzia txikia zen: Gipuzkoako hamar heldutik batek baino gutxiagok aipatu zuen horiek dezentetan edo askotan (ezagutza aditua) erabili izan zituela. Horiei tarteka erabili izan zituztela erantzun zuten bi edo hiru pertsonak gehitu behar zaizkie.
- Dena den, azkenaldiko esperientziari erreparatuta, ikaskuntza-jarduerak egin dituzten hiru lagunetik bik baino gehiagok era birtualean egin dituela ikusten da (soilik edo jarduera presentzialekin uztartuta).
- Aurreko ibilbideari eta azkenaldiko esperientziari dagokienez, karakterizaziorako baliaagarriak diren eta ikaskuntza birtualeko tasa handiagoa jasotzen duten hiru faktore daude: adina, lortutako ikasketa maila eta enpleguarekiko lotura.

Emaitza orokorrak eta dokumentu osoan zehaztutakoek bi gogoeta hauek baieztatu dituzte: alde batetik, ziurtatu beharra dago arraila digitala ez dela helduek ikasten jarraitzeko oztopo gehigarri bihurtuko eta, bestalde, pertsonak “ingurune birtualean ikasten ikasi” beharra dute, baina prestakuntza-eskaintzak ere ingurune horretarako prest eta egokituta egon behar du.



Izenburua: Tele-ikastea: ibilbidea eta azkenaldiko esperientzia
80. dokumentua, 2021eko azaroa

Koordinazioa eta gainbegiraketa: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko
Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Egilea: IKEI, research & consultancy SA

Landa-lana: Datakey, S.A.